

# HANDITZEN- HANDITZEN

Herria ezagutzen



# HANDITZEN- HANDITZEN

*Herria ezagutzen*

**Argitaletxea:** Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

**Egilea:** Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

"Hik Hasi" aldizkariarekin elkarlanean.

**Ilustrazioak:** Aitziber Alonso

**Diseinua:**  zure balioen marka

**Argazkiak:** Arrasateko Udal Artxiboa, Indalecio Ojanguren eta Zerrajera funtsa, Santamas komisiñue, Mondraberry eta Arrasateko Udalaren Hezkuntza saila.

**Inprimatzailea:** Gertu

**LG:** SS-1026/2010



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**hh**  
hik hasi

 Nire auzoa ..... da.

Honelakoa da nire auzoa:

---




---




---




---

 Marraztu zure auzoan gustuko duzun txokoa.



 Adierazi hemen agertzen diren auzoen izenak, zure iritziz, Arrasatekoak diren edo ez.

AUZOA	ARRASATE	
	BAI	EZ
URIBARRI		
MUSAKOLA		
INTXAURTXUETA		
SAN ANDRES		
ERREKALDE		
MAKATZENA		
DORLETA		
SANTA TERESA		
MENDIOLA		
GARAGARTZA		
MARIN		
GESALIBAR		
UDALA		
PORTASOL		
BEDARRETA		

 Ezagutzen al duzu Arrasateko beste auzorik?

---



---

- Oinaztar eta ganboar leinuen artean borroka ugari egon ziren, eta hori herrian islatu zen. Halaber, Ferrerias kalean altzairua lantzen zen eta hiribilduaren egitura egurrezkoa zenez, su hartzeko arriskuan bizi zen herria.

1448.- Oinaztar eta ganboar leinuen arteko borroketan ganboarrek (Bañez leinukoak) herria erre zuten. Herria suntsituta gelditu zen.



1666.- Ferrerias kalea ia osorik erre zen, 14 etxe erre ziren eta hainbat eraitsi zituzten sutea amatatzeko. Haizea norabidez aldatu zen, eta horregatik ez ei zen erre herri osoa.



Gerra napoleonikoetan (1808-1814) tropa frantsesen gunerik haundiena Arrasaten izan zen eta txikizioak, lapurretak eta gehiegikeriak egin zituzten.


1353. urtean herriari Gesalibar, Garagartza, Uribarri eta Udala herrixkak zein Erenuzketa, Isasigaina eta Oleaga tokiak atxiki zituzkion.



Meategien ustiatetaren ondorioz, biztanleria ugartu egin zen eta denak ez ziren sartzen harresien barruan. Herriak handitu beharra zeukan, eta harresietatik kanpo errebalak eraikitzen hasi ziren: Maala, Zarugalde eta Gazteluondokoak.

 Zergatik atxiki zitzaizkion herriari?

.....

 Bi errebal Aramaio errekaaren ondoan eraiki zituzten, baina bat, Gazteluondokoa, ez. Izenari erreparaturik, non ote zegoen? Badakizu?

.....

.....



1906an "Unión Cerrajera" lantegia sortu zuten. Langile eskaria handitu zen eta lantegiak ere ugartzen hasi ziren.



"Vasco Navarro" trenarekin batera 1918an langile asko etorri ziren herrira lan egitera.


XX. mendeko 1960ko eta 1970eko hamarkadetan lantegietan langileen eskaria handia zen. Urte gutxian migrante andana bat etorri zen herrira lan egitera, biztanle kopurua nabarmen handitu zen eta haientzat etxebizitzak eraiki behar izan ziren.

Herririk erreken ubidean eta aldapan gora hazi behar izan zuen, baserrietako lur soroak galduz joan ziren eta denbora gutxian etxebizitza ugari egin zituzten nonahi. Horrela sortu eta handitu ziren San Andres, Santa Teresa, Kristobrero, Makatzena, Musakola-Zigorrola, Uribarri eta Erguin.

Horra hor zenbat biztanle zegoen orduan. Osatu alboko taula datuekin.

Urtea	Biztanle kopurua
1556	1900
1787	2601
1800	2200
1820	2300
1844	2114
1881	2.989
1900	3.713
1910	4.706
1920	5.915
1930	7.720
1940	8.645
1950	10.014
1960	14.168
1970	22.421
1981	26.045
1986	26.367
1991	25.532
1996	24.571
2000	23.718

Urtea	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Biztanleak	23.118	23.166	23.078	22.887	22.604	22.312	22.118	21.934	22.064



Joxe Manuel Arriola Arrasateko udaltzaina izan zen berrogei urtean, bertsozale handia da eta milaka bertso egin zizkion garai hartako Arrasateri. Bertso hauek 1971. urtekoak dira.

**“GURE GAZTEAK EUSKERARIK  
EZ DU ABERASTUKO”**

Ala beharrez gure  
Lurrean hainbeste  
Euskaldunengandikan  
Sortutako gazte  
Ez dakiteurak ala dutenikan uste,  
Baiña hizkuntzarekin  
Zorrak badituzte

Herbestekoak izan  
Ohi duten \_\_\_\_\_  
Kapritxotzat bakarrik  
Harturik \_\_\_\_\_  
Iristen ez bada ere  
Zeharo \_\_\_\_\_  
Aurrera beharrean  
Jungo da \_\_\_\_\_

EUSKERA

GALTZERA

ATZERA

ANTZERA

Gazteak edonun da  
Edonoiz alkarte  
Erdera barra-barra  
Erabiltzen dute.  
Amak esan:euskeraz  
Hitzegin zazute.  
Aguro erantzuna:  
Zu,ixildu zaite

Gaitz txarrak zapaltzeak  
Ez genezke Portu  
Euskera gaixotua  
Honela ezin piztu  
Hil zorian ez badago  
Ere dabil estu.  
Baiña txikia dala.  
Beste errurik ez du



ONTZAT

BEHINTZAT

GURETZAT

AINTZAT

Horrela ari gera  
Ez dakit noiz arte  
Gero bete beharrak  
Nola ondo bête?  
Etzan, ez, gertatuko  
Beste horrenbeste,  
Izanikan euskera  
Behar hainbat maite

Zorionez Jainkoak  
Emana \_\_\_\_\_  
Euskaldunok euskera  
Danok degu \_\_\_\_\_.  
Txikia dala eta  
Ez hartutzen \_\_\_\_\_  
Ez daigun hiltzen utzi  
Horregatik \_\_\_\_\_


Ipiniko al zenuke oin bakoitza bere lekuan?

Zergatik uste duzu...

1 Gazteek ez zutela euskaraz egiten? .....

2 Azaltzen al du euskara zein egoeratan zegoen? .....

3 Bertsolariaren ustez, euskaldunok nola hartzen dugu euskara?  
.....



**Nor da nongoa?**

Gure auzoa toki lauan dago, Bergararekin muga egiten du eta futbol-zelaia du.

Baserri-auzoa da, goien dagoen auzoa da, eta Arrasateko mendirik altuena du.

Auzo honek Aramaiorekin egiten du muga eta ospitale psikiatriko ospetsua du.

Auzoak etxe altuak ditu, erreka ondoan dago eta bederatzi letra ditu.

Antzina meategiak zituen, jende gutxien bizi den auzoa da, eta Udalatx mendiaren magalean dago.

Aramaiio errekek zeharkatzen du, Lezetxiki kobazuloa bertan dago, eta plazan lamia baten estatua dago.

Gure auzoa aldapatsua da, bertatik ez da erreka pasatzen, eta liburutegia eta ludoteka ditu.

Gure auzoa toki aldapatsuan dago, kale askoren izenek agertzen dituzte lehenengo baserrien izenak. Ikastetxe bat dago bertan.


Toki garaian dago baserri-auzo hau, lehen Aretxabaletakoa zen, eta auzoan Loramendi idazlea jaio zen.

Lehen Zerrajera fabrikaren zati handi bat zegoen, eta orain ospitalea dago.

Auzorik handienetakoa da, bertan Unibertsitatea dago, eta kiroldegia du.

Eraikuntza historiko gehienak daude eta Monterron parkea dago.





Auzoak kaleka daude antolatuta. Kaleek lehengo baserrien, tokien, pertsonaia historikoen izenak hartzen dituzte. Zein auzotan daude kale hauek?

Lapurdi  
Zuberoa  
Gipuzkoako etorbidea  
Oñati

Elkano  
Antso Abarka  
Gebarako Errando  
Nao Santiago

Usaetxe  
Larrea  
Erguin  
Uriburu

Ikastetxearen kokapenaren arabera.

- 1 Musakola/ Makatzena- Santa Marina- Santa Teresa- Kristo Obrero.
- 2 San Andres/ San Josepe.
- 3 Erdialdea (Hiribildua-Altamira-San Juan-Jokin Zaitegi-Zerrajera-Zaldibar-Kontzeziño-Uarkape-Zarugalde-Munar).
- 4 Uribarri/ Erguin.

## GURE AUZOA

Auzoak ez du beti izan gaur egun duen itxura, aldatzuz doa...



Zer ote zegoen auzoa eraiki aurretik? Ikertu eta kontatu.

---

---

### A) ELKARRIZKETA. AUZOTAR BATI.

Zauden auzoaren inguruan landa-lan bat egin behar duzu.

- 1 Noiz etorri zinen auzora bizitzera?
- 2 Auzoak badauka kale nagusiren bat? Aipatu auzoko hiru kale. Eta plazarik?
- 3 Auzo honetan badago parkerik eta umeek jolasteko zaburik?



4 Zein zerbitzu dago auzoan?

- a.- Kultura-guneak (liburutegiak, ludoteka, gazte-txokoak).
- b.- Kirol instalazioak.
- c.- Ikastetxeak.
- d.- Osasun-zerbitzuak.
- e.- Merkataritza-zentroak.
- f.- Industria-guneak

5 Zure ustez, zer hobetu daiteke auzoan?

.....

## B) ZUK ZEUK.

Idatzi auzoan gustuko dituzun lekuak.

.....

.....

.....

.....

Idatzi gustuko **ez** dituzun lekuak.

.....

.....

.....

.....

Auzotarren iritziak oso garrantzitsuak dira auzoetako bizi-kalitatea hobetzeko.

Auzoa hobetzeko nire proposamenak.

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....

## C) INKESTA

Gustura bizi da jendea auzoan?

.....

BAI

EZ



**6** URIBARRI.- Unibertsitatea, industrialdea



**5** SAN ANDRES  
Etxaluze, kooperatibak



2

**SANTA MARINA**  
Ludoteka, liburutegia  
eta Jubilatuen etxea



3

**ERDIALDEA.-** Hiribildua,  
Kulturate



1

**MUSAKOLA**  
Kirol instalazioak



4

**ZALDIBAR**  
Anbulategia eta ospitalea

Garaj batean baserriek garrantzi handia izan zuten, baina industriak eta etxeak eraikitzekeo, lursailik onenak erabili zituzten eta haietako asko botata daude. Baserriak zeuden leku horietan, haien izenak erabiliz, kaleak, auzoak eta industrialdeak eraiki dituzte. Zerrenda honetan hainbat baserriren izenak dituzu. + Ikurra dutenak botata daude.

Mapa honetan gorriz koloreztatu.

**MUSAKOLA**

- 1. Aranguren
- 2. Altzibar
- 3. Zigorrolaazpikoa +
- 4. Mojategi
- 5. Etxezarreta +
- 6. Itsasondo +
- 7. Kataide +
- 8. Agirretxebarri
- 9. Agirre edo Agarre +

**MEATZARREKA**

- 10. Meatzaga
- 11. Salturri
- 12. Kostobal +
- 13. San Balerio
- 14. Etxaldebarri

**ZALDIBAR**

- 15. Antzarrigartu
- 16. Santa Marina +
- 17. Loo
- 18. Makatzena +

**UDALA**

- 19. Dolara
- 20. Kabuena
- 21. Txukurriilo+
- 22. Beaskoa

**BEDOÑA**

- 23. Artazubiaga
- 24. Andramarizuri
- 25. Magalve +

**URIBARRI**

- 26. Gorostitza
- 27. Markulete +
- 28. Larratxu
- 29. Olarantxiki +
- 30. Oleaga
- 31. Ekufio
- 32. Usaetxe +
- 33. Bastergaingañekoa

**SAN ANDRES**


- 34. Miraballes
- 35. Intxausti
- 36. Bedoñabeerdi +
- 37. Etxaluze +
- 38. Otamendi
- 39. Satorretxe +

**GESALIBAR**

- 40. San Jurgi
- 41. Arroaga
- 42. Imendi
- 43. Erenuzketaaldekoa

**GARAGARTZA**

- 44. Emaldi
- 45. Bostate +
- 46. Akiso
- 47. Aizpekoa
- 48. Korreoena



- Baserriak eta baserritarrak oso beharrezkoak izan dira nekazaritza, abeltzantza, eskulangintza eta autokontsumorako Arrasaten eta Euskal Herrian.



- Euskarari dagokionez, baserritarrek erabili izan duten hiztegia oso aberatsa izan da beren bizitzako jarduerak adierazteko. Baina denboraren joanean, tresna, lanbide eta ohitura asko galtzen joan dira eta horiekin batera hitzak, beharrezkoak ez diren neurrian galtzen ari baitira.



Saiatu zaitetz **urdinez** dauden hitzen esanahiak topatzen, banan-banan edo taldeka.

- 1** Garia errotan **ehotzea**.
- 2** **Oremahian** irina **bahearekin eralgi, zahia eta birzahia** banantzeko.
- 3** Oremahian 40 kg irin botatzen da, erdian zulo txo bat utziz ondoren **azkarria** eta gatza bota behar da bertan, 20 litro urekin nahastuz.
- 4** **Orea** egiten da. Orea jaiki artean 2 orduz itxoin behar da. Ondoren ogiari forma ematen zaio.
- 5** Trapu batekin estaltzen da.
- 6** Labea garbitzen da, brasia kentzen da eta **ipiskia** pasatu behar da.
- 7** **Labesuan** ogiak sartzen dira eta 2 orduz egosten uzten dira. Atera baino lehen eta egina dagoen ala ez konprobatzeko behatza sartu eta urarekin apurtxo bat busti behar da.



- Lehen hainbat lantegi herriaren barruan egon ziren eta denboraren poderioz tokiz aldatu dira, herriaren kanpoalderantz, eta batzuk desagertu ere egin dira.

LANTEGIAK industrialdeetan daude, eta gaur egun sei daude herrian: GARAGARTZA (Garagartza auzoan), MARKULETE (Uribarri auzoan), MUGARRIETA (San Andres auzoan), KATAIDE (Musakola auzoan), ZALDISPE (Zaldibar auzoan eta A-20 (Musakola auzoan).





- Baseri asko erreken ubidean zeuden, baina industrialdeek nekazaritza-eremu horiek hartu dituzte. Argazki honetan, etxetresna elektrikoen enpresa handi batek lur eremu zati bat hartzen du gaur egun. Zer izen du enpresa horrek?

- Erdialdean zeuden enpresen lur eremuetan, gehienetan, etxebizitzak eraiki dituzte. Begiratu plano honetan ea asmatzen duzun Union Cerrajera enpresa non zegoen. Margotu arkatzez argazkiaren gainean.





-  Herritarrak administratzen dituen entitatea, alkateak eta zinegotziek osatua. Hauteskundeak normalean lau urtetik behin egiten dira, eta alderdi politikoek hautagaiak aurkezten dituzte, herritarrek aukeratzeko.



-  Badakizu nola dagoen osatuta udala? Osatu eskema, hitz egokia aukeratu.

Badakizu nork aukeratzeko dituen zinegotziak?

Eta alkatea?

- Begira zer zerbitzu dituen Udalak, 2-16 urte bitarteko herritarrentzat. Begiratu kokapena auzoka, eta udalekoekin harremanetan jarri nahi izanez gero, zerbitzu bakoitzaren e-posta daukazu.

UDAL ZERBITZUA	HELBIDEA	E-POSTA
Okendo kaleko ludoteka	Okendo kalea (Erdialdean)	haurrak@txatxilipurdi.com
Uribarriko ludoteka	Usaetxe plaza (Uribarri Erguin)	haurrak@txatxilipurdi.com
Santa Marinako ludoteka eta liburutegia	Galicia kalea 1. Tokiargiko eraikinean	haurrak@txatxilipurdi.com
San Andresko gaztetxokoa	Arrasate dorrearen etxabeen	gazteak@txatxilipurdi.com
Erguingo gaztetxokoa	Usaetxe plaza (Uribarri Erguin)	gazteak@txatxilipurdi.com
Musakolako gaztetxokoa	Elkano kalea 10	gazteak@txatxilipurdi.com
Erdialdeko gaztegunea	Pablo Uranga 6	gazteak@txatxilipurdi.com
Kulturate	Azoka kalea 1	biblioteka@arrasate.eus
Amaia antzokia	Otolora litzentziaduna kalea 6	antzokia@arrasate.eus
Musakolako kiroldegiko instalazioak	Elkano kalea 27	aukea@arrasate.eus
Iturrieko kiroldegia	Uribarri etorbidea	aukea@arrasate.eus
Uarkape	Otolora litzentziatua 10	uarkape @ arrasate.eus
Gazte bulegoa	Biteri etorbidea 3 Garibai etxea	gaztebulegoa@arrasate.eus
Kale heziketa	Herriko plaza 1	kaleheziketazerbitzua@arrasate.eus
Sexologia zerbitzua	Biteri etorbidea 3 Garibai etxea	sexologiazerbitzua@arrasate.eus



- Azaldu hitz gutxitan zertarako diren honako zerbitzu hauek.

## ZERBITZUA

Ludotekak

Liburutegia

Musakolako eta  
Iturrieko kiroldegia

Gazte bulegoa

Kulturate

- Herrian betidanik egon da musikarako eta kanturako zaletasun handia. Sebero Altube gaitero bikaina izan zen eta Arrasateko musika bandako zuzendaria ere.

XIX. mendearen bukaeran Udal Musika Banda sortu zen, eta 1974. urte arte jardun zuen.

1972. urtean Arrasate Musikal elkarteak sortu zen, sortzaileetarikoa bat eta lehen zuzendaria Juan Arzamendi izan zen. Hasieratik Albina Madinabeitiak, garai hartako bibolinistarik onenetarikoa estatuan, akademiaren eskolak ematen jardun zuen.



- Zuetako batzuk koruren bateko kantariak izango zarete agian. Badakizue zein koru dauden herrian?

---



---

- Ezagutzen duzue herriko musika-talderik, musikagilerik edo musikaririk?

---



---

- Badakizu gure herriaz diharduen kanturik?

---



Kantuan aritzen diren beste batzuk bertsolariak dira!

Jose Manuel Arriola, kalezain ohiak bertso ugari egin zituen eta horietako asko **“Nekez bada ere”** liburuan jasota dira.

Patxi Goikoleak, beste bi lagunekin batera aintzandari izan ziren bertsolari taldeak hezten. Talde hauetako partaide bat Jon Iñaki Izarzelaiak izan zen eta bereak dira **“Errementari dantza”** eta **“Txerri dantza”** kantuen bertsoak.

Hainbat bertso-saio izaten dira, batez ere jaietan eta AED elkarteak Jokin Zaitegi literatur lehiaketan antolatzen duen bertso paper lehiaketa.



Egun, eskoletan ere lantzen da bertsolaritza, eta urtero bi funtzio egiten dira Amaia Antzokian. Zu datorren ikasturtean hasiko zara bertsolaritza lantzen!

Herrian, arestian, Arrasateko bertso eskola sortu dute.



- Pirinioen bi aldeetan dantzaten duen herria garena diote, eta dantza taldeek antzinatik parte hartu izan dute herriko festetan.

Gure herrian lau erromeria ospatzen ziren: San Josepekoa, Santamasetakoa, Goikobalukoa eta Gesalibarkoa.

Bi dantza talde garrantzitsu daude herrian, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz.



- Talde horiek euskal dantzak erakusten dituzte, baina herrian beste dantza mota batzuk ere lantzen dira.

Alabaina, badaude beste dantza motak lantzen dituzten taldeak. Ezagutzen al dituzu?

- Zein dantza mota ezagutzen duzu?

- Duela urte asko, dantza egiteko sekulako zaletasuna zegoen. Domeka arratsaldeetan herriko plazan dantzaldia izaten zen, eta geroago gazteentzat azoka estalian "Berduri Hall"-ean ere. Mutilek dantza egiteko eskatzen zieten neskei, eta bikote ugari sortu ziren urte askoan.



## Historian zehar, idazle asko izan dira herrian:

Esteban de Garibayek historiaz idazteaz gain, atsotitz liburu bat idatzi zuen.

Seber Altube musikaria izateaz gain, literaturagile eta hizkuntzalari aparta izan zen.

Jokin Zaitegi poema egilea, itzultzaile trebea eta idazle oparoa izan zen, eta "Euzko Gogoa" aldizkaria sortu zuen, gerrostean euskaraz egindako lehen argitalpena.

Herriaren historiaren inguruan Jose Letonak eta Jose Luis Urangak asko idatzi zuten. Hil eta gero, haien familiek eginiko lan guztiak Udalari utzi zizkioten eta Kulturaten daude konsultatzeko.

## Inoiz hartu duzu parte literatur lehiaketaren batean?

.....

Arrasaten, badago literatur lehiaketarik?

.....

Idazle hauetatik zeinek daukate kale izena herrian?



## ANTZERKIA

Betidanik egon da antzerkizaletasuna herrian. Desagerturiko Trinkete saloian, "Acción Católica"ren saloian eta "Gurean" funtzioak egoten ziren.

Gero ere, Amaia antzokia zabaldu zenez geroztik, emanaldi ugari izan dira bere programazioan.


Eskoletan betidanik landu da antzerkia, eta Udalak ikastetxeekin batera urtero bere programazioan antolatzen ditu antzerki eskolaren jardunaldiak.

Garai batean "Los tunantes del Norte" izeneko taldea zegoen herrian, eta gaur egun, Doke taldea.


Ikusi duzu antzerki lanik inoiz? Non?

.....


Banatu taldeetan, eta prestatu antzezlanen bat lagunei eskaintzeko.

 Eta zuk, kultur jardueraren bat egiten duzu? Zein?


.....

 Zure etxekoak kultur-talderen bateko partaide dira?


.....

 Joan zara inoiz ikuskizunen batera? Edo kultur emankizunen bat ikusi edo entzun duzu?


.....

 Zein kultur jardueratan nahi izango zenuke parte hartu?


.....

 Eta zure gelako lagunek zer egiten dute? Galdetu eta bete taula.


.....


 Zein da gehienok egiten duzuen jarduera?

.....

 Zer da gutxienok egiten duzuen?

.....

 Lagunen batek egiten du jardueraren bat herritik kanpo? Zein eta non?

.....

Entzun azalpenak eta ipini bakoitzari dagozkion ezaugarriak.



**INAUTERIAK (/KUKUMARRU DESFILEA)**

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....

**SANTAMASAK (feria)**

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....



**OLENTZERO**

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....



**SANTA AGEDA**

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....





## SAN JUAN SUA Ekainaren 23an

Gure arbasoek antzinatik ospatzen dute udako solstizioa urteko gau motzenean. Egun, herriko plazan gazteen kuadrilek ekarritako makal enbor luze bat jarri eta jendea enborretik gora igotzen saiatzen da.

Errementari-dantzan, dantzariak eta alkateak suaren inguruan dantzatzen dute. Bukatzeko sua piztu eta haren gainetik salto egiten dute herritarrek. Auzoetan ere suteak pizten dituzte.



## MARITXU KAJOI Urriaren lehen ostiralean

1977. urteaz geroztik ospatzen dugu jai hau. Txikiteroen zaindariaren omenez egindako jai herrikoia da. Lore eskaintza Maritxuri, jaiaren oroigarria-eskapulaixua-eta dotore jantzita joatearena dira jai honen ezaugarri garrantzitsuenak.

## SAN NIKOLAS Abenduaren 6an

Antzinako tradizioa da. Umeak baserriz baserri eta etxez etxe joaten ziren lehen gauzak jasotzeko, eta kantua hau kantatzen zuten. Egun, etxe eta dendetara joaten dira eta udaletxetik litxarkeriak botatzen dituzte beraientzat, kantua kantatzen badute, behintzat.

San Nikolas Coronado  
 Arzobispo Mariandres  
 A la Luna, noche y día  
 Etxeko andre noblia  
 Egizu, egizu pilia  
 San Nikolas, triskilistras  
 Dame una castaña y no quiero más  
 Aquí estamos cuatro, cantaremos dos  
 Para San Nikolas, por amor de Dios  
 Belengo Portaleko ate zabaletan  
 Hotzak ikaraz dago  
 Jesus laztoetan. (bis)  
 Angelitos somos suspi-suspiramos  
 Lukainka, txorizo  
 (Neskai) (Mutilai) bapez  
 (Mutilai) (Neskai) dana



**SAN JUAN JAIK.** Udako solstizioa.  
Herriko jai nagusia.  
Ekainaren 23, 24, 25 eta 26an.

**SANTAMASAK.** Neguko solstizioa.  
Abenduaren 22an. Abenduaren 24an Olentzero eta Txoronpio zein Txoronpia kalera irteten dira.

**MARITXU KAJOI**  
Urriaren lehenengo ostiralean.  
Txikiteroen zaindariaren eguna.

**INAUTERIAK**  
Inauterietako larunbata eta asteartea ospatzen dira herrian.

**MEATZERREKA AUZOKOAK**  
Urtarrilaren 28an, San Balerio.

**GESALIBAR AUZOKOAK**  
Otsailaren 5ean, Santa Ageda.

**SAN ANDRES AUZOKOAK**  
Maiatzaren 1ean.

**MUSAKOLA AUZOKOAK**  
Maiatzaren 15ean, San Isidro.

**SANTA MARINA AUZOKOAK**  
(Makatzena-Santa Teresa)  
Uztailaren 18an, Santa Marina.

**MAALAKO ERREBALA**  
Uztailaren 22an, Magdalenak.

**FERRERIAS KALEKOAK**  
Uztailaren 26an,  
Santa Ana.

**UDALA AUZOKOAK**  
Abuztuaren 3an,  
San Esteban.

**URIBARRI AUZOKOAK**  
Abuztuaren 24an,  
San Bartolome.

**ZARUGALDE KALEKOAK**  
Abuztuaren 28an,  
San Agustin

**ERGUIN AUZOKOAK**  
Irailaren 21ean,  
San Mateo.

**BESAIDE** (Oroitzapen Eguna)  
Irailaren bigarren domekan. Hildako mendizale guztiei omenaldia egiten diete.

**GARAGARTZAKOAK**  
Irailaren 29an,  
San Mielak.

**SAN NIKOLAS**  
Abenduaren 6an. Herriko haurrak eskean joaten dira abestuaz.

**BEDOÑA AUZOKOAK**  
Abenduaren 10ean,  
Santa Eulalia.



Kokatu itzazu goian azaltzen diren jaiak egutegiaren taulan. Herriko jaiak gorriz, auzokoak berdez eta besteak urdinez.

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA



ZER DA?

URIBARRI.....

KULTURATE.....

ARANGUREN.....

MARKULETE.....

ARRASATE MUSIKAL.....

LORE GAZTEAK.....

SAN NIKOLAS.....

MEATZERREKA.....

JOSE LETONA.....



Zuzena dena aukeratu.

Herria harresietatik kanpo nola handitu zen?

- Maala, Zarugalde eta Gazteluondo errebalak eraikiz.
- Deba errekaeren ezker aldean asentamendu gehiago eraikiz.
- Garagartza eta Gesalibarren etxe gehiago eginez.

Nolakoa izan zen herriaren hazkundera XX. mendeko 1960ko hamarkadan?

- Bat-batekoa.
- Poliki-poliki hasi zen handitzen.
- Beti izan da horrelakoa.

Zein egunetan ospatzen da San Nikolas eguna?

- Abenduaren 24an.
- Ekainaren 24an.
- Abenduaren 6an.

Hauetatik zein da baserri baten izena?

- Mojategi.
- Garagartza.
- Gelma.



Aipatuko zenituzke herrian ospatzen ditugun kultur jarduerak?

.....

.....

.....



# HANDITZEN- HANDITZEN

*Herria ezagutzen*

1. Izan ginelako
2. Errementarien zalapartapean
3. HANDITZEN-HANDITZEN
4. Gure altxorra
5. Izan ginelako gara
6. Ekin eta ekin



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh  
hik hasi

di·da zure balioen marka

[www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)